

MUNDU GARAIKIDEAREN OINARRIAK

Unai Belaustegi Bedialauneta
eta
Alejandro Pulido Azpiroz
Asteazkenetan: 11h00-13h00 L 0.12 gelan
Ostiraltan: 11h00-13h00 L 0.12 gelan

Aurkibidea:

- 1.GAIA. Antzin erregimenaren krisia (XVIII)
- 2.GAIA. Iraultzak eta kontrairaultzak (1789-1848)
- 3.GAIA.
- 4.GAIA. Inperialismoaren aroa (1884-1915/45)
- 5.GAIA. 1MG
- 6.GAIA. Errusiar iraultza
- 7.GAIA. Gizartea eta politika Mundu Gerren artean (1919-1939)

1.GAIA. Antzin erregimenaren krisia (XVIII)

1.1 Sarrera

Frantsesek Erdi Aroko Feudalismoaren deskonposaketa edo eraldaketaren ostean sortutako sistema ekonomiko, politiko eta soziala izendatu zuten Antzin Erregimentzat eta Europa mendebaldean ezarri zen XVIII-XIX. mendeetan zehar Iraultza liberal eta Industrialetararte. “Antzin Erregimena” terminoa, Frantziar Iraultzarekin zabaldu zen eta aurreko garaiak atzean uztea zen xedea, hala eta guztiz ere, estamentuetan oinarritutako sistema honek, aurreko sistemaren, hau da, Feudalaren, ezaugarri asko mantentzen zituen. Antzin Erregimenean aldaketa handiak eman ziren baina, besteak beste, trantsizio demografikoa, monarkia absolutua ezartzea, burgesiaren agerpena, kapitalismoa/liberalismoa, errenazimentua eta feudalismoarekin amaitzea. XVIII-XIX arteko marko kronologikoaren baitan, aldaketa prozesua ez zen berdina izan herri bakoitzean: prozesu guztiak ez baitziren izan aldi berekoak, ezta iraupen berekoak ere.

1.2 Demografia

Trantsizio demografikoak demografia eredu batetik (jaiotza edo heriotza tasa altuak), beste eredu batera igarotzean datza (jaiotza eta heriotza tasa baxuak). Honako aldaketa hau, XVII-XVIII.mendeetan eman zen, demografia hazkundea emanez Europako biztanlerian: XVI.mendean, hazkunde motela eman zen eta XVII.mendean, hazkundea gelditu egin zen nolabait esatearren, hau da, populazio galera eman zen izurri, gerra eta goseteen ondorioz, baina XVIII.mendean, hazkunde nabarmena eman zen, zergatik? industrializazioagatik, bizi baldintzak “hobetu” zirelako, hainbat herritarrek Amerika izan zutelako irtenbide, izurriteak eta gosea “gutxitu” zirelako, medikuntzaren arloan aurrerapenak eman zirelako... Hortaz, biztanleria etengabe handitzen zihoalako, erregimen demografikoa aldatu zen eta ekoizpena handitzeko premia sortu zen.

1.3 Ekonomia

Europako populazioaren %80a landan bizi zen eta nekazaritza eta abeltzaintzan jarduten zuen, baina teknologia kaskarrak zituzten, ingurumenak eragin handiegia zuen beren uztetan eta asko baldintzatzen zuen, lurren jabetza jauntxoek esku zegoen eta zergak ordaindu behar zituzten.

Nekazaritza, bi ustiaketa sistemen bitartez eraman zen aurrera:

1. eremu irekiak: (openfield) lursail handiak ziren, jabe bakar edo kolektibokoak. Hemen ez da lur sailen banaketarik bereizten.
2. Itxiturak (enclosure): lursail mugatuak ziren, jabe bakarrekoak eta aurrekoak baino txikiagoak. Bertan, denetariko produktuak antzen ziren.
3. Herri lurak edo komunalak: herritarrek edo auzokoek erabiltzen zituzten, adibidez, abereei bazka emateko.

Nekazariak bizi zituzten baldintza kaskarren adierazle, irabazi guztiaren %7a baino ez zuten jasotzen, izan ere, aurretik aipatu eran, jauntxo laiko edo eklesiastikoak ziren lursail horien jabe eta nekazariak zergak ordaindu behar zituzten. Mendeetan zehar, zerga kantitateak gora egin zuela uler daiteke, gerrak mantentzeko balio zuten neurrian. Nekazaritzaren produktibitate urriak, goseteak eta prezioen gorakadak, nekazarien kexak eragin zituzten.

Hirietako artisautza eta industriari dagokionean, gremio bitartez zeuden antolatutako, monopolioak zirenak (zapatagileak, zapatagileekin, *zapatagileen kalea* osatuz). Gremioen mekanizazioa ematen hasia zen. XVII.mendetik aurrera, harreman kapitalistak agertu ziren landan eta kolokan jarri zen aurreko antolaera hau, izan ere, nekazariak baliatzen ziren artisautzarako “domestic-system”-aren bidez (inbertitzaile kapitalista batek lehengaiak erosi eta

nekazarien etxeetan banatzen zituen, produktua etxean egiten zen eta ondoren inbertitzaileak jaso eta prezio librean merkaturatzen zuen) eta gremioei aurre egitean, haserreak eman ziren. Industrializazioa XVIII.mende amaieran eman zen Ingalaterran, gremioen antolakuntzaren gainbehera aditzera emanez eta lurrin makina, hariak lantzeko makinak (1779)... sortu ziren.

Merkataritza gehien garatu zen ekonomia sektorea izan zen, batez ere, nazioarteko merkataritza Amerikarekin. Europako estatu askok kanpoko lurraldeak konkistatu eta inperioa osatu zuten: Espainia, Portugal, Ingalaterra, Holanda... Estatu modernoek merkataritza-monopolioak ezarri zituzten, menpean zituzten lurraldeak gobernuek babesturiko konpainia pribilegiadun handiek kontrolatzen zituztelarik. Nazioarteko itsas merkataritzaren testuinguruan, kontuan izatekoa litzateke, piratak, kortsarioak... ibiltzen zirela tartean.

1.4 Gizartea

3 estamentutan banatua zegoen, pribilegioetan oinarrituriko gizartea izanik:

1. Noblezia (erregea eta jauntxoak)
2. kleroa
3. Hirugarren estamentua: herri xehea

Jaio eta hil estamentu berean egiten ziren, nobleek eta elizak pribilegio handiak zituztelarik (Frantzia, XVIII.mendean, populazioaren %2a zen). Aitzitik, herri xeheak bere baliabideak eta lan-indarra baino ez zituen bizirauteko. Honen aurrean, herria baztertuta sentitzen zen eta haserrealdiak eman ziren aldaketa eskaerekin batera, ideia erreformistak eta iraultzaileak zabalduz.

Estamenturik pribilegiatuena noblezia eta kleroa ziren. Nobleziaren goreneko maila, aristokrazia zen, boteretsu eta aberatsenek osatua (administrazioko eta armadako goi-karguak izan ohi ziren). Hauen boterea, esan liteke, nabarmenki handitu zela XVIII. mendean zehar. Hala eta guztiz ere, gainerako nobleziaren boterea txikitu egin zenez gero, uler daiteke, goi-burgesia eta nobleziaren arteko botere tartea oso txikia zela, hau da, burgesiaren agerpenak arriskuan jarri zituela. Nobleziak eta kleroa ez zuten zergarik ordaintzen, errege-ogasunak, herri xeheak soilik ordaintzen zituen, baina pentsa liteke ez zela batere eraginkorra, estatuen diru-sarrerak izugarri mugatzen zirelako.

Hirugarren estatua herria zen, gehiengo absolutuak osatzen zuena (%98-97). Pribilegio juridiko edo ekonomikorik ez zuten eta honenbestez, eskubiderik ere ez. Zuten eginkizun bakarra, lan egitea zen zergak ordaindu ahal izateko, gizarte-zeregin murrizta zutela esan genezake, garaiko ekonomiaren oinarritzeko sektorea izan arren. Nahiz eta burgesak izan hirugarren estatu honetan bizimailarik onena zutenak, ez zeuden gustura beren egoerarekin, izan ere, politikan eta gizartean eragin handiagoa izan nahi zuten. Bestela esanda, Elizan, politikan, administrazioan eta armadan parte hartzea aldarrikatzen zuten haserrea eta iraultza piztuz.

Gizartea teozentrikoa zen eta Jainkoarengandik zetozen botere politikoa nahiz erlijiosoa Lurrean Jainkoaren gobernua ezarriko zelako. Honakoa justifikatzeko, Itun Zaharrean, Genesisia, jainkoak mundua nola sortu zuen eta nola bota zuen gizakia paradisuatik ageri da idatzia.

- Adan: "Ganaras el pan con el sudor de tu frente"
- Eva: "parirás con dolor" (Genesisia, 3:16-19)

1.5 Politika

XVI-XVIII.mendeen artean, absolutismoaren garaian kokatuko ginbateke, non, monarkia indartzen ari zen Europan, izan ere, botere absolutua, Jainkoak (Elizak) babestu zuen eta Estatuko botere guztia bere esku zegoen. Frantziako Luis XIV.a (1643-1715) hartzen zen monarkia absolutuaren

eredutzat, zentralizazioa zuena. Erregea aristokraziak (Nobleek) mantentzen zuten bilera ezberdinen bitartez. Bilera hauek Erdi Aroan ere egiten ziren eta denborak aurrera egin ahala gero eta konplexuagoak bihurtu ziren: batzar nagusiak, Parlamentua...

Absolutismo garaian, monarkiak zalantzan jartzeari ekin zioten indibiduoaren oinarri izanik. Hala, pentsatzeko eta gizartea hautemateko beste modu bat eratu zen: liberalismoa. Liberalismoa, hitz gutxitan esateko, askatasun indibidualen aldarrikapena litzateke, alegia, gainera dagoen boterea zalantzan jartzea norbanakoak bere egitasmoa aurrera eramateko duen eskubidean oinarrituta. Pentsamolde berri honen ideien artean, ondokoak lirateke funtsezkoenak: Estatuaren esku-hartzea ahalik eta gehien murriztea, askatasuna, legea eta indibiduoaren aldarrikapena. Esan gabe doa, diskurtsoa hau garaian zegoen sistemaren kontrakoa zela.

Liberalismoa, XIX.mendean erabiltzen hasitako terminoa dugu: "actuar libremente equivale a decir obrar con generosidad, e implica ser pródigo. Evoca ideas de aliento, luminosas, razonables y bellas..." Jo Grimond.

Monarkia absolutuaren eta elizaren autoritatea zalantzan jartzeak eta pertsonen eskubideak aldarrikatzen hasteak, Iraultza Ingelesa ekarri zuen ondotik (XVII.mendean). Indibiduoaren agerpena Lockeek bultzatu zuen eta liberalismo politikoaren aita dela esan genezake. Lockeek absolutismoa kritikatu zuen, herri-subiranotasuna aldarrikatu zuen, giza eskubideak errespetatzen aldarria egin zuen, botere legegilea eta betearazlea banatu zituen eta tiraniaren aurka matxinatzeko eskubidea aldarrikatu zuen. Voltair berriz, fanatismo, intolerantzia eta erlijio-sineskerien etsaia zen. 1753.urtean, Eliza katolikoak Voltaireren lanak kondenatu zituen Tolerantziari buruzko tratatua (1763) eta Hiztegi Filosofikoa (1764) bezelako lanetan agertzen zirelarik bere ideiak; bietan ere arrazoi ilustratua defenditzen zen fanatismo eta ezjakintasunaren aurka. Hobbes ere aipatzekoa genuke, aurreko bi autoreekin batera, iraultzaren garrak piztu zituelako XIX.mendean erregearen kontra emango ziren mugimendu politikoetarako. Liberalismoa, ordea, kapitalismoaren garapenarekin oso lotua dago. Burgesia klasea izango da diskurtso hau bereganatuko duen klasea, izan ere, indibiduoaren aldarrikatzea, pentsatzekoa da, burgesiari interesatzen zitzaiola.

Britainia Handiko kasuan (1640-1689), Ingalaterrako erregearen boterea mugatu nahi zen, hartara, jauntxo eta burgesek indar handiagoa har zezaten, politikan parte hartuz. Honakoa, Ingalaterran errege bat zegoelako, Guillermo III.a, eta erregimen horren kontra egin nahi zelako gertatu zen. Testuinguru horretan behar genituzke ulertu Ingeles Iraultzak (1642-1660; 1668; 1689). XVII.mendean, monarkiaren kontrako iraultzak hasiko ziren, altxamenduaren kontra egiteko, erregeak nobleei eta nobleen ordezkariak zuten parlamentuei laguntza eskatuko zirelarik. Honen aurrean, parlamentukoek erregeari laguntza behar zuenean soilik jotzen zuela parlamentura leporatu zioten eta erregea indarrez sartu zen bertara banaketa sortuz: erregearen jarreraren alde eta kontra zeudenak.

Ondoren Richard Cromwellek errepublika autoritarioa ezarri zuen, botere guztia bereganatzen saiatuz eta Iraultza Lortutua izenez ezaguna den altxamendua ekarri, 1689.urtean. Orduan, ingelesek erregea atzerrira eramatea pentsatu zuten, baina baldintza batzuk soilik ezarri zituzten Bill of Rights izeneko eskubideen aktan, alegia. Ordurarte erregea jainkoagatik zegoen karguan, baina aurrerantzean, baldintza batzuk bete beharko zituen errege izan nahi bazuen. Hala, erregearen boterea mugatua zegoen eta parlamentua indartu zen, aristokraziak osatzen zuena. Holandan, Espainia garaitu eta errepublika ezarri zen, hau da, erregerik gabeko sistema politikoa. Lurraldea zazpi gunen administrazioetan banatu zuten eta bakoitzak bere bilkurak izango zituen eta estatuko ordezkarietan elkartzeko ziren.

Bill of Rights (1689) izenekoan, honakoak eman ziren aditzera:

- El Rey no puede crear o eliminar leyes o impuestos sin la aprobación del Parlamento

- (...) no puede cobrar dinero para su uso personal, sin la aprobación del Parlamento
- Es ilegal reclutar y mantener un ejército en tiempos de paz, sin la aprobación del Parlamento
- Las elecciones de los miembros del Parlamento deben ser libres
- Las palabras del Parlamento no pueden obstaculizarse o negarse en ningún otro lugar
- El Parlamento debe reunirse con frecuencia

1689ko iraultzaren ostean, sistema politiko ingeles berria ezarri zen: monarkia parlamentarioa (liberalismoa). Bertan, erregearen egitekoak honakoak ziren: gorberrua izendatu, legeak ezarri/baiezatu, parlamentuaren gaineko azterketa erabakia (desegin eta beste bat osatzeko deialdia egitea) eta zergak ezartzeko eta armada mugiarazteko eskumena izatea. Parlamentuaren egitekoak aldiz, hiritarrak ordezkatzeko, legeak onartu/ezartzeko, erregeak proposaturiko zergak ordaintzea, armadak mugiarazteko onartzea eta aldizkako bilerak burutzeko izango ziren.

Ilustrazioa:

XVII-XVIII.mendeetan Europan eman zen mugimendu sozio-kulturala litzateke. Honen ondorioz, munduaren ikuskera aldatu zen: arrazoa eta askatasunaren ideia sortzen da eta fedearen eta arrazoiaren arteko banaketa ematen, tradizioarekin amaituz eta gizakiaren ikuspegi unibertsala zabalduz, berdintasuna aldarrikatuz. Hau hala izan zedin, baldintza batzuk eman ziren orde: aurrerapen teknologikoak, inprenta bidez jakintza zabaltzea, kazetak... Elizaren papera ere zalantzan jartzen hasi zen eta politika, monarkia eta hiritarren ordezkartzaren arteko eztabaida sortu zen. Hemendik ideia berriak sortu ziren: subiranotasuna (gorengo aginpidetza duen pertsona).

Despotismo ilustratua:

XVIII.mendean Europako monarkia absolutuetan, erreforma politika bat proposatu zen filosofia-korronte berri baten ideietan oinarritua, Ilustrazioan, hain zuen ere. Erreforma politika zertan oinarritu zen? Bada, estatua sendotu, administrazioa zentralizatu, armada profesionala osatu eta parlamentuen eta beste erakundeen boterea murrizten. Bestalde, ekonomia hobetzea beharrezkoa zela jakitun, merkataritza eta industrializazioa garatu ziren eta aurrerapen zientifikoari eta hezkuntzari mesede egiten zieten. Baina erreformek ez zuten Antzinako Erregimenaren oinarria aldatu. Despotismo ilustratua estatua erreformatzen saiatu zen, baina oinarriak aldatu gabe. Gizarte estamentalak eta jauntxoaren erregimenak beti bezala jarraitu zuten. Pentsaera hori erakusten da esaldi ezagun honetan: "Todo para el pueblo, pero sin el pueblo".

1.6 Antzinako erregimenaren krisia

Antzinako Erregimena, XVIII.mendearen azken herenean, krisian murgilduko da, kapitalismoaren garapenarekin eta Ilustrazioaren ideiekin batera. Kapitalismoak jauntxoaren erregimena kolokan jarriko du eta Ilustrazioak, sistema politiko eta soziala. Gainera, mundu berriaren erabilera ematen hasiko da inperialismoarekin. Hazkunde demografikoak eta nazioarteko merkataritzaren garapenak salgaien eskaera eta prezioen handitzea ekarriko dute. Errenta finkoak zeuzkatenean, hau da, nobleziaren, erosteko ahalmena jaitsi egin zen. Hemendik, irabazten aterako zen burgesia, aristokraziaren lekua hartuko duena. Iraultza burgesek, gizarte estamentalak irauliko dute. Bestalde, pentsalari ilustratuek, pribilegio feudalei eta gizarte estamentu-banaketari uko egiten zieten, fanatismo eta intolerantziaren aurka zeuden. Askatasun ekonomikoa eta liberalismoa defenditzen zituzten, absolutismoari aurre eginez.

2.GAIA. Iraultzak eta kontrairaultzak (1789-1848)

2.1 Sarrera

XVIII eta XIX.mendeetan, zenbait iraultza politiko eman ziren mendebaldean, Aro Garaikideko oinarri ideologiko eta politikoak ezarriz (2 ideia): askatasuna/liberalismoa eta berdintasuna. Ondorioz, hiritartasunaren ideia zabaldu zen, hau da, indibiduoaren eskubide zibilak (prentsa, baztekoa...) eta berdintasun politikoa izatea (sufragio unibertsala...) nahiz eta motel samar garatu zen. Hala eta guztiz ere, Europa, XIX.mendean oraindik monarkia zen nagusi eta ez sistema liberalak. 1870 ostean, prozesua bizkortu zen eta poliki-poliki, liberalismo moderatua (errola sufragio edo parte-hartze mugatua) jarduera demokratikoetara igarotzen hasi zen. Prozesu honetan lagunduko zuten faktoreak hauek izanik, besteak beste: Bigarren Industriad Iraultza, langileak beren eskubideen alde borroka egiteko mugimenduak sortzea, sozialismoaren indar hartzea, masa gizartea, sufragioa, emakumeek boto-eskubidea lortzearen aldeko borroka egitea... Hala, hiriak handitu, modernizatu, fabrikak ireki, bolevard-ak eraiki... ziren.

Zuzenbide estatua

Zuzenbide estatuaren oinarrietariko bat izan zen Iraultza Ingelesean ezarritako Bill Of Rights (1689), hala, gizartea lege bidez antolatuko zen eta oinarrizko eskubide batzuk izango zituzten agintariak egonik hau aurrera eramateko kontrola edo oreka bilatzeko. Absolutismo garaiekin amaieran sortu zen Zuzenbide estatua, demokraziak ordezkatu zuelarik. Honen aurrean, burgesiak botere ekonomikoa eskuratu ostean, parte hartze politikoa eskatu zuen eta hiritarren presioa jasan zuten. Bestalde, gizartearen eta Estatuaren kontzeptuaren oinarriak aldatzeko prozesua hasi zen. Teorian, Zuzenbide estatua estatu absolutistari aurre egiteko sortu zen, konstituzio batez eta bi iraultzen bitartez ezarria izan zena. Konstituzioa Estatu baten egunerokotasuna zehazten duen lege bilduma denez gero, hiritarrek "agintzen" dute eta hiritar bakoitzak bere eskubide eta betebeharrak betetzen ditu, giza-eskubideen deklarazioa izanik. Horren baitan, estatua antolatzeko modua zehazten du eta boterearen erabilera zehaztu edo kontrolatzen du. Iraultzak berriz, 2 izan ziren XVIII.mendean: Estatu Batuen Independentzia eta Frantziako Iraultza. Honakoak liberalismoarekin batu ziren demokrazia eta askatasun eskuratzeko asmoz. Ondorioz, estatu nazionalaren eraikuntza, hiritarren parte hartzea (sufragio unibertsala, partiduak...) eta zentralismoa emanik (foruak). Honen ostean, botere banaketa eman zen.

Iraultzak gertatzeko, hainbat arrazoi eman ziren: Arrazoi sozial eta ekonomikoen kasuan, lurra eta baliabideak gutxi batzuen eskuetan zeudela, gizarte ezberdintasunak handiak zirela eta batzuen baldintzak oso gogorak zirela, gizartea estamentalak zela, beti ere pribilegiatuen mesederako eta burgesiaren agerpena eman zela, botere politikorik ez zutenez, erreformak eskatu zituztela.

Arrazoi ideologikoei dagokienean, Ilustrazioak (XVIII) mundua ikusteko modua aldatu zuela, monarkia absolutuaren aurkako jarrera handitu zen, botere banaketaren aldeko jarrerak zeuden, herri-subiranotasunaren kontzeptua agertu zen eta liberalismoa eta askatasuna kontzeptuak zabaltzen hasi ziren.

2.2 AEB-ko iraultza (1763-1789)

Britainia Handiak 13 kolonia zituen Ipar Amerikako ekialdeko kostan. Amerikar Estatu Batuak eta Britainia Handia hala, gerran egon ziren Amerikarrek autonomia gehiago eskatzen zutelako medio. 1776 uztailaren 4an Independentzia aldarrikatu zuten Amerikar Estatu Batuetakoek. Gerra iritsi arte, kolonien autogobernua zen nagusi, nahiz eta merkataritza arautegiek Britainia Handiari egiten zioten mesede.

Independentzia aldarrikatzeko, zenbait arrazoi zeuden: politikoak, ekonomikoak, nazionalak..., besteak beste, Britainia handien eta Frantziaren ineteres handiak, Zazpi urteko gerra (1756-1763), Inperioaren presioa handitu zela kolonietan, emigrazioa handitu zela eta arazoak zituztela natiboekin tabakoa medio eta Europa ezegonkorra izatea gerra eta arazoak medio.

Zazpi urteko gerra (1756-1763), Europa eta kolonietan eman zen. Ameriketako Estatu Batuetan, Gerra Franko-Indiarra bezala ezagutzen da. European, ezegonkortasuna baztertu eta bi fronte eratu ziren: Frantzia, Austria eta Errusia alde batetik, eta bestetik, Britainia Handia eta Prusia. Europako gerra hauen ondorioz, Europako metropolien eta kolonien arteko harremanak sakonki kaltetu ziren, izan ere, Britainia Handiak frantziar koloniak garaitu nahi zituen, gainera, Kanadatik hegoaldera zeuden kolonien harremanak apurtu ziren Missisipi-ren bitartez. 1758an, koloniak bitan zatitu ziren, 1759.urtean, Quebec bereizi zen eta 1762.urtean, Montreal. 1763.urtean Pariseko Bakea sinatu zen eta Britainia Handia munduko inperio bilakatu zen Frantzia kanpoan geratuz.

Gerraren ondorioz, Britainia Handia zorpetua geratu zen gastu handiak medio eta koloniek ordaindu behar izan zituzten, zergen bitartez. Aldi berean, mendebaldeko lurren kolonizazioaren hedatzea eta fabrika berriak sortzea debekatu zuen, natiboen arazoak handitzea lortuz. Britainia Handiak neurriak hartu zituen kolonietako autonomiaren kontra, eta lege ezberdinak inposatu zizkieten kolonoei: Sugar Act (1764), Stamp Act (Tinbrearen legea, 1765)... Erabaki ekonomikoak izateaz gain, erabaki politikoak ere baziren (adierazpen askatasunaren kontrakoak), adibidez, Britainia Handiko koroaren zigiluaren beharra zuten eskutitz zein prentsari.

Honen aurrean, protestak hasi ziren, “No taxation without representation” lemapean jokatzeko zuten, izan ere, kolonoek ezin zuten politikan parte hartu. Erabakiek haserrea piztu baino ez zuten egin, eta beraz, produktu ingelesak aurkako boikota eman zen. Bostonen eman ziren protesta handienak, hain ziren handiak, non, Britainia Handiak tropak bidali behar izan zituela, 1770an, Bostoneko portuan, manifestazio eta masakre izugarriak emanek. Britainiar Parlamentuak zerga bereziak etzera bota behar izan zituen soilik tearen zergak mantenduz eta tea saltzeko monopolioa Ekialdeko Indietako Konpainiari emanek. 1773.urtean, Tearen kontrako matxinada eman zen Bostonen indioz jantzitako 50 kolonok tea uretara bota zutelarik. Honen aurrean, Britainia Handiak, legeak gogortu behar izan zituen portua itxi eta izugarritzeko isuna jarri Massachusetts-eko biztanleei, kolonoen batasuna handitzea baino ez lortuz. Independentziaren aldarrikapena, 1776an eman zen. Aldarrikapenerako, 1776an, Thomas Paine-ek Common Sense: “banantzeko ordua da”, independentziaren aldeko propaganda zabaltzen haritu zen, Ilustrazioan defendituriko ideietan oinarrituriko panfletoak zirenak, baina Britainia Handiaren tiraniaren kontra jendea mobilizatzen lagunduo zuena. Jeffersonek berriz, bi astetan Independentziaren aldarrikapena idatzi zuen 1776/07/04an honakoa aldarrikatu zuen: “Sostenemos como evidentes estas verdades que todos los hombres son creados iguales, que entre estos están la vida, la libertad y la búsqueda de la felicidad...”.

Amerikako Estatu Batuetako Konstituzioari dagokionean, Britainia Handian gerra deklaratu zenean hasi zen prozesua (1775-1783). Bitartean, koloniak estatu bilakatu ziren (1776-1780) eta egitura politiko propioa eratu zuten: Eskubideen Eskutitzak: Virginia (Mason), historia garaikidean, lehenengo giza-eskubideen adierazpen bezela egiaztaturik. 1786/1787-1789 urteen bitartean, Konbentzio federala ezarri zen 1789/09/17an, Konstituzioa martxan jarri zen, oinarritzat, besteak beste, Bill Of Rights baliatuz. Konstituzio hau, liberalismo politiko garaikidearen printzipioen lehen adierazpen praktikoa izan zen, Antzinako Erregimenarekin (Mundu Zaharrarekin) apurtuz. Amerikar Estatu Batu-ko konstituzioak demokrazia modernoaren oinarriak ezarri zituen, orain arte ikusirikoa aplikatuz eta gerretan bizirikoa ere bai. Demokrazia, askatasunarekin identifikatu zuten eztabaida handiak ekarri (boterearen ingurukoak, aberatsen artekoak...). Lehenengo lehendakari George Washington izan zen (bi legealdi ezarri zituen), Washington D.C.tik. Bien bitartean, Britainia Handia gerran zegoen 1812-1814 urteen bitartean

Kanadako lurrenagatik, Ganteko bakeaz, 1814an amaitu zelarik. Ameriketako, sufragio “unibertsala” hasiera hasieratik onartu izan zen, baina boto eskubidea, mugatua zen, gizon zuri protestanteek (WASP) soilik zutelarik posible eta 1920an, emakumeek bozkatzeko hasiko zirelarik, baina beltzek 1960ko hamarkadara arte segregazioa pairatu zuten. Estatu berriak biltzen joan ziren, guztira 50.

Ameriketako Estatu Batuen konstituzioan, honako emendakinak eman ziren: 1- adierazpen askatasuna, biltzeko askatasuna... 2- armak erabiltzeko eskubidea: herria armatzea Britania Handikoei aurre egiteko.

John Adams-en, Ameriketako Estatu Batuetako 2. en presidentea, Estatu nola antolatu eztabaidak eman zituen eta Euskal Herrira etorriko zen bertako egoera ikertzera, izan ere, monarkiaren botere zentralaren aurrean, foruak zeuden eta beste zenbait egoeren artean hau ere baliatuko zuen bertako legeek botere zentralari nola aurre egiten dioten ikusteko.

2.3 Frantziar iraultza (1789)

Amerikako Estatu Batuetako irautzaileekiko garaikidea izan zen Frantziar Iraultza, baina ezberdintasun asko eman ziren. Batak zein besteak Antzin Erregimenaren estrukturak aldatu nahi bazituzten ere, Frantziar Iraultzak XIX. mendean zehar oihartzuna izango zuen.

Zergatik gertatu zen Frantziar Iraultza? bada, interpretazio ugari daude: Marxistek, burgesiaren arrakastagatik emango zela esango zuten (XVIII. mendean zehar garatuko den klase soziala, XIX. mendean indartuko dena). Erromantikoek (G. Lefèbvre), herriaren haserreagatik eman zela zihoten. Krisi ekonomikoak eta absolutismoak (despotismoak) bultzatuko zuen, gehiengoa pobrea zelako eta erregeak botere absolutua zuelako.

Frantziar Iraultzak 3 fase izango zituen: 1789-1791, 1792-1795 eta 1795-1799 urteen tartekoak.

Lehen fasea, 1789-1791: garai horretan jo zuen hondoa Antzinako Erregimenak, Ilustrazioak eta gizarte krisiak bat egin zutenean. Politika eta gizarte egituren aldaketa eskatu zen, parte hartze berriak ezarriz. 1789. urtean, feudalismoa indargabetu eta Gizakiaren Eskubideen Adierazpena onartu zen, garai berriei hasiera emanez. 1791. urtean, Konstituzioa, Europako lehenengoa ezarri zen. Honen oinarriak hauek izango ziren: sistema politiko berria, liberalismoa oinarri izatea: norbanakoaren garrantzia eta askatasuna izatea, monarkia legearen menpe egotea, giza eskubideen adierazpena ematea, eliza eta estatua banatzea izaera zibila hartuz eta sufragio mugatua izatea (biztanle aktiboek soilik, hau da, %15ak).

Bigarren fasea, 1792-1795: bigarren fase hau, Konbentzio Nazionalarekin, Jakobinoena zena, hau da, zentralistena, bat dator. Sasoirik erradikalena izango zen eta monarkiarekin amaituko zuten erregea hilez, hau da, Luis XVI.a (1793). Ostean, I. en Errepublika aldarrikatuko zen, “konstituzioa” eta diktadura izaerako gobernu bat ezarri zen, “izualdia” izenekoa. Gobernu honek botere guztiak bereganatu eta erabaki erradikal nagusiak hartu zituen: gizonezkoen sufragio unibertsala ezartzen zen, nobleziari ondasunak kendu eta nekazariak jabe egiteko prozesua bultzatu, prezioak eta soldadak kontrolatu... Terrorea zabalduko zen oposizio guztia garbituko zutelako, besteak beste, Robespierre eta Girondionekin amaituko zen. Europako monarkia osoa beldurtua zegoen eta gerra deklaratu zioten Frantziari.

Hirugarren fasea 1795-1799: sektore kontserbadoreak agintea hartu zuenez, iraultzaren geldialdia gertatu zen, “iraultza izoztua” delakoa. Errepublikano kontserbadoreek boterea eskuratu zuten. Iraultzak, norabidez aldatu zuen Jacobinoak hil egin zirenean, iraultza baretuz eta oinarri moderatuagoekin benetako Errepublika “burgesa” eratuz. 1795ean, egoera berrien isla zen Konstituzio berriaz sufragio mugatua ezarri zen. Gainera, botere legegilea ahuldu zen eta botere

betearazlea Direktorioaren eskuetan geratu zen. Direktorio hori bost zuzendarik eta bi kamerak osatzen zuten, gero, hiru zuzendarik eta azkenean, bakar batek. Monarkikoekin amaitu zen honen bitartez, nazionalista eta moderatua zena ezarriz. 1799an Estatu kolpe bat eman zen: Bromuarioa. Urte honetan, lehen kontsula ezarri zen eta 1802.urtean, bizi osorako kontsula ezarriko zen (Napoleon pasako da jeneral izatetik kontsul izatera eta bere burua izendatuko du bizi osorako kontsul).

Iraultza hau, aldaketen hasiera izan zen (hazia jarri zen, baina aldaketak poliki-poliki emango ziren XIX.mendean zehar Frantziar aldaketa prozesuak aurrera jarraituko zuelarik). Liberalismoa eta demokrazia finkatzen hasi ziren, nahiz eta sistema demokratikoa XX.mendean ezarri zen. Iraultzaren ostean, Frantziako estatu liberal berriak administrazioa zentralizatu eta berdintasuna ezartzen joan ziren pixkanaka eta legeei dagokionean, nolabaiteko eskubide eta betebeharren uniformetasuna ezartzen hasi ziren. Hala, denak frantsesak izanik, Iparraldeko euskaldunen frantsestea eman zen eta foruak galtzeaz gain, beren hizkuntza zen Euskara ere ez zen babestua geratu XVIII.mendean. Frantziar liberalismoa Europan ere kopiatua edo ezarria izan zen, adibidez, Espainian, izan ere, Napoleonek iraultzaren izenean, Europako hainbat lurralde konkistatu zituen.

2.4 Napoleon Bonaparte (1799-1815)

Robert Southeyren irakurketa erromantikoaren arabera, Estatu indartuko zen, legea izango zen estatuaren oinarria eta herria izango zen estatu sostengatuko zuen aktore politiko berria.

Napoleon Bonaparte, Ajaccio-n, Korsikan jaio zen 1769.urtean. Iraultza garaian, jenerala izan zen, agintea hartu zuena 1799/11/09-an, Direktorioa kontrolatzen zuelarik, hau da, lehen kontsula. Despotismoa ezarri zuen iraultzaren izenean “baserritarren enperadorea naiz” lema aplikatuz eta burgesiaren interesak defendatu zituen. 1804an, enperadore izendatu zuen bere burua: Napoleon I.a; Amien-en izendatua izango zena Pio VII aita santuaren babespean. Ingalaterraren aurka galdu zuen Trafalgarren, 1805.urtean, Mantxako kanala kontrolatu nahi zuelarik. Napoleon, oso pertsona kontraesankorra izan zen eta bere gerrak sistema politiko ezberdinen arteko gerrak izan ziren. Gerra izan zen bere ideiak hedatzeko bideetako bat eta hala, Europan zehar zabaldu zen, inperioa eratuz. 1805.urtean, Hirugarren Koalizioa eman zen Britainia Handia, Errusia eta Austriaren artean. 1806an, Errusia eta Austria garatuak izan ziren, Austerlitz-eko guduan. 1806an aldiz, Prusia garaitua izan zen Rhin inguruan. Ingelese berriz, Europa blokeatu nahi izan zieten. 1807-1808 urteen inguruan, Espainiara ere zabaldu nahi izan zuen inperioa, baita Italia iparraldera, Holandara... Napoleonek zenbait aldaketa eman zituen bere lurretan: Napoleonen kodea ezarri zien 1804.urtean (Bonapartek sortutako legedi zibila izango da eta frantziarren legedi ofiziala izango da, gaur egun ere indarrean dagoena nahiz eta erreformak eman. Kode honekin, Napoleonek behin betiko amaitu nahi zuen Antzinako Erregimenaren estrukturarekin), konstituzioak eta erakunde liberalak ezartzea eta Baionako Konstituzioa/ Estatutua 1808an (Jose Bonapartek eginiko gutun ofiziala zen, 1808ko uztailaren 4an, Baionan aurkeztua. Bertan, Espainiako errege bezela agertzen zuen bere burua eta bere gobernua ezartzerako orduan, modelo konstituzional bonapartistan aitortzen da).

Honen aurrean, “iraultza” zabaldu zen Europan. Foruak galduz joan zen Euskal Herria 1808 eta 1839 urteen bitartean, 1808ko uztailaren 7an Baionako estatutua/konstituzioa edo Acte Constitutionnel de l’Espagne ezarri zen Estatu guztirako baliagarria izango zena eta Euskal ordezkariek beren ikuspuntua adieraztera joan ziren, tartean, Bizaiko ordezkaria ere bai: Jose Maria Yandiola. Suteak medio, 1812an, Moskutik erretiratu behar izan zuen eta 1813an, Laugarren koalizioa eman zen Frantziaren aurka, non, partaideak honakoak ziren: Britainia Handia, Errusia, Austria, Prusia, Portugal eta Espainia. Napoleonek, Leipzigen galdu egin zuen Nazioen batailan. 1814.urtean, Koalizioa Parisen sartu zen eta Napoleonek abdikatu egin behar izan zuen Elba-n, 1815an, ihes egin behar izan zuelarik. Hala eta guztiz ere, berriro boterea

eskuratu zuenean, kolizioak berriro erreakzionatzea bultzatu zuen gerran sartuz. Gerra hau, 1815/06/08an eman zen Waterloo-ko gerra izan zen eta Napoleonek behin betiko porrota izan zuen.

Ondorioz, Napoleon Bonaparte atxilotua eraman zuten uztailean Santa Elenara (Afrikako kostatik 1800 km-tara dagoen irla batera) eta bertan hil zen 1821.urtean. Napoleonen porrotak, bidea ireki zuen Europa guztian Antzinako Erregimenetik hurbileko jarrera politikoetara itzultzeko eta horregatik, Frantzia monarkia berrezarri zen (Luis XVIII.a 1815-1824). Hala ere, Antzinako Erregimenaren erabateko berrezarkuntza ez zen posible izan tradizionalismoainsartu zelako (Iraultzaren aurkako joerak eta kontserbadoreak). Frantzia bezala, Europan ere joera bera eman zen, besteak beste, Espainian.

2.5 Berrezarkuntza eta iraultzak (1815-1870)

1815.urtean, Vienako Kongresua eman zen Frantziako Iraultzarekin hasi zen prozesuan sortutako arazoak konpontzeko, partaideak, Rusia, Austria, Prusia, Britainia Handia eta Frantzia izanik. Helburua, Europako mugak berrezarri eta Antzinako Erregimenaren ideologia eta sistema politikoa berrantolatzea zen, hau da, monarkiaren itzulera eman nahi zen, berrezarkuntza alegia. Luis XVIII.a ezarri zen errege monarkia konstituzionala ezarriz Frantzia (1814). Inperioen arteko akordioak eman ziren Europan ordena ezartze aldera. Interbentzioak eman zituzten hortaz, iraultzak ekidin ahal izateko, beste estatuetan sartuz. Berrezarkuntza eta oreka eta ordena, I.en mundu mailako gerrarate bat egongo zen (1848 arte).

Frantzia, XIX.mendearen lehen erdialdean oreka eta ordena monarkikoa mantentzen zen erregeak bata bestearen atzetik ezartzen zirelako. Frantzia kasu paradigmaticoa izan zen, eragin handikoa kontinente osoan. 1848ko Iraultzak ere eragin handia izango zuen. Luis XVIII.ak (1815-1824) monarkia konstituzionala ezarri zuen, Carlos X.ak berriz (1824-1830), absolutismoa ezarri zuen, 1830.urtean, iraultza emanaz. Luis Felipe I.a errege burgesa etorri zen ondoren (1830-1848), barrikaden erregea izango zena. Monarkia konstituzionala ezarri zuen (1814), burgesiari mesedeak eginez. 1848an, iraultzak eman ziren Parisen eta II.en Errepublikak ezarri zen 1848-1852urteen bitartean Luis Felipek abdikatu egin behar izan zuelarik. Gobernu berria, "errepublika sozial eta demokratikoa" izango zen eta honetarako, eskubideen aldeko jarrera abiatu zen: sufragio unibertsala, greba eskubidea, 10 orduko lan-jarduna... Ostean, II.en inperioa ezarri zen (Napoleon III, 1852-1870): enperadorearen autoritatea gailendu zen, politika militarren bidez eman zen.. burgesia eta elizak lagundu zuelarik. III.en Errepublika (1870-1940/5) eman zen.

1848an, Errepublikako lehendakaria aukeratu zen lau urterako, Luis Napoleon Bonaparte izango zena. 1850.urtean estatu kolpea prestatzen hasi ziren, 1851.urtean gauzatuko zena. Errepublikanoak erreprimitea lortu zen, konstituzioa aldatzea eta hauteskundeak ospatu ziren, baina baldintza berriekin, sufragioa mugatua izango zen. 1852an, Luis Napoleon Boapartek, II.en inperioa aldarrikatu zuen, Napoleon III.a enperadorek 1870.urtera arte izango zuena.

Pariseko hirigintzari dagokionean, 1852an, Napoleon III.ak Paris modernizatu nahi izan zuen eta Haussmann arduratu zen honetaz. Hiri zaharra zen, gainpopulatu, izurriteak zeuden, baldintza txarrak zeuden.. Desjabetzak emanaz, Paris zaharra erautsi eta burgesiak etxe berriak eraiki zituzten. Hiriak modernizatu zituzten, boulevardak, lorategiak, eraikin tamaina berberekoak eta ederrak... eraikiz.

Iraultzak Europan ondorio esanguratsuak izan zituen. Berlin, Viena, Milan, Turin, Erroman... iraultzak eman ziren guztiek helburu bera zutelarik: tradizionalismoarekin amaitu eta liberalismoaren printzipioak ezartzea (askatasun indibiduala, ordezkartza politikoa, nazionalismoa...). Alemaniako erreinuetan eta Italiakoetan, 1848ko iraultza, estatu nazionalaren eraikuntzarekin lotuta egon zen.

4.GAIA. Inperialimoaren aroa (1884-1914/45)

4.1 Sarrera

1492ko Amerikaren aurkikuntzarekin, mundua aldatu eta Europak nagusigoa lortu zuen. Europarrak mundura zabaltzeko ziren itsasoan nagusi zirelarik eta lurretan ezarri. Inperio iberiarrak, hau da, Portugalgoa eta Hispaniar Inperioa, lehen menderatzaileak izan ziren: Tordesillas-eko itunean (1494) zehaztu ziren mugak, aldi berean, Vasco de Gamaren espedizioa Indiara heldu zen eta 1498.urtean, lehenengo kolonia ezarri zen (Calicut). Kolonien bidaiekin Amerikako kolonizazioa hasi zen XVI.mendearen hasieran.

XVII.mendean, beste potentzia batzuek parte hartu zuten, hau da, Britainia Handia, Frantzia eta Holanda-k. Horregatik, Europar estatuak inperio bilakatu ziren kolonien bidez, eta inperio handiak sortuko ziren; bakoitza bere ezaugarriekin. Inperio hauek, II.Mundu Gerrara arte iraungo zuten, deskolonizazio prozesua hasi arte.

Europarrak hasi ziren munduan zehar koloniak ezartzen 1830.urtean, Asia eta Afrikan nagusi zirelarik XIX.mendean.Zabalkunde kolonial horrek bi fase izango zituen:

1- 1870/80 arte, esplotazio kolonial ez formala eman zen, hau da, harreman ekonomikoak egon arren, metropoliak ez zuten lurralde koloniala politikoki menderatu. Merkataritza harremanak ezartzea zen helburu nagusia, ez lurraldeak okupatzea.

2-Bigarren fasea, 1870/80tik aurrera eman zen. Industrializazioarekin batera, kolonien gaineko administrazioa ezarri zen. Mendebaldeko potentzia kolonial nagusiek beren ondasunei eusteko neurriak hartu behar izan zituzten: lurralde menpekotasun "formala" ezarri, lur horietako administrazio berezia antolatu, gerrari ekin eta beren nagusitasunari eusteko beste hainbat gastu egin. Indarraren bidez egin zuten honakoa eta kostu handia suposatu zuten.

4.2 Inperialismoa

Inperialismoa, herrialde bat indarkeriaren bidez (militarra, politikoa edo ekonomikoa) beste herrialdeetara zabaltzeko jarrera da. Inperialismo terminoa, XIX.mendean erabiltzen hasi zen. Zertarako? Bada, mendebaldeko estatuaren handitasuna eta zabalkundea justifikatzeko, garai klasikoak gogoratu. Inguruko lurren eta nazioarteko konkistan aplikatuko zen. Eragin handia izan zuen, izan ere, politikan, ekonomian, gizartean, kulturean... Britainia Handiak zer esan handia eskuratu zuen hala, munduko ontziteriaren %45a euren eskuetan zegoelarik eta itsasoan nagusi baziren, munduan ere bai.

Europak nagusigoa arrazoi ezberdinengatik izan zuen:

- Industrializazioaren bultzada, XVII.mendean hasi zen eta sendotzen ari zen. Honek produktzioa igotzea eta merkatu berriak bilatzea eragin zuen.
- Teknologiaren garrantzia, batez ere, arma eta garraioan
- Europaren nagusigo historikoak munduan ere eragina izan zuen, Amerika deskubritu eta konkistatu ostean, zibilizatu egin zuten, mundua europartu beharra izan zuten, hau da, mendebaldeko ohituretara ekarri eta gizon zuriaren nagusigoa eskuratu hala. Nolabaiteko Darwinismo soziala eman zen.
- Potentzien arteko lehia nazioetara zabaltzeko, Europa txiki geratu zelako (azalpen geopolitiko-geoestrategikoa zuen honek). Nazio-estatuak inperio bilakatuko ziren.

Inperialismoaren interpretazio ezberdinak eman dira. Interpretazio ekonomiko ezberdinak eman dira; Hobson-ek, *Estudio del imperialismo (1902)*, errentagarritasunagatik gertatu zela zihoen. Lenin-ek, *El imperialismo, la fase superior del capitalismo(1916)-n*, kapitalismoak etekinak handitzeko inperialismoa beharrezko duenaren kritika botu zuen, baita merkataritza hazkundera

eta hazkunde ekonomikoak harreman berriak sortu zituztela ere: soberakinak esportatu eta kanpotik ekartzen hasi ziren hala. Inbertsioek mundua Europaren mesedetan antolatu zuten, espezializazioak eraginez: Europaren eta kolonien artean menpekotasun harremanak ezarri ziren. Europak industria-ondasunak ekoiztu eta lehengaiak kontsumitzen zituen. Periferiak alderantziz jokatzeko zuen. Horrela, desoreka handia zegoen merkataritza-balantzan.

Interpretazio geo-politiko-ideologikoen, arrazakeriarekin lotzen dute inperialismoa: European nazionalismoak areagotu eta hau arrazakeriarekin nahastu zela, aurretik jada besteak baino hobekiago sentitzen ziren ordea. Nazioaren ezaugarriak honakoak dira: jatorria, hizkuntza (kultura), helburuak, sinbologia, erlijioa, sentimendua/ezberdintzeako joera eta taldearen parte sentitzea. Politika bitartez, lur berriak konkistatu zituzten, mundua europartu behar zutelako, europarrak onenak zirelako eta goi mailako arrazaren betebeharra zelako hura.

Inperialismoan, teknologiek lana erraztu zuten koloniak mendperatzea erraza izan zelako eta kostu txikikoa izan zelako, teknologiak, nolabait, inperialismoa merketzen lagundu zuen. Ondorioz, metropolietatik dena eraman eta ekarri zen : bizimodua, ohiturak, etxeak, kultura, artea, garraioa, aisialdia, lana, gaixotasunak, abereak, landareak... Hala, metropoliekiko dependentzia ekonomikoa zuten koloniek, sektore industrial eta zerbitzu garapen maila baxuak medio. Metropolian berriz, azpiegituren garapena eman zen, hortaz, segregazio arraziala nabaria zen. Demografia hazkundera eman zen, baina indigenen demografia galera (Europako gaixotasunaren sarrera eta gerrak medio). Inperioen arteko lehia ordea, sekulakoa zen, gerora emango zen Mundu Gerra ekarriko zuena. Kolonizatuek beren kultur identitatea galdu zuten, baina metropoliek lehengaiak eskuragarri izatean, industria garapena eman zen produkzio aniztasuna handia izanik, monoprodukzioa alegia. Erlijio sinkretikoak eman ziren eta inpaktu natural handia izan zuen: landare inportatuak edo egokitzapenak, meatzaritza... ekosistema naturalen suntsipena emanez.

Berlingo konferentzia

Berlingo konferentzia, 1885eko otsailean eman zen, Berlingo hirian, Afrikako kolonizazioak europarren (eta europarrak ez zirenen) artean eragindako arazoak konpontze aldera (lur gehiago nork lortuko) ospatu zuten konferentzia. Konferentzia honetan, Afrikako kontinentea osorik (salbuespen bakan batekin) banatu zuten euren artean, mugak eta baldintzak zehaztuz (hala nola, noraino nabiga zitekeen, komertzioa librea izango zen ala ez...).

Europarrek zatiketa hori erregela eta kartaboiarekin egin zutelako esan ohi da, ez zituztelako errespetatu muga naturalak edo etnia bakoitzaren jarrorizko lurraldekotasuna. Parte hartzaileak, Erresuma Batuak, Errusia, Frantzia, Portugal, Belgika, Holanda, Espainia... batzuk interesa zutenak zituzten eta beste batzuei komeni zitzaizkien bertan egotea.

Afrikatik jada Europarrak aspalditik zeuden bertan, eta pixkanaka kontinente barnera sartzen hasi ziren. 1884/5an Berlinen, europar potentziak bildu eta Afrika zatitu zuten Niger eta Kongo-ko ibaietan nabigatzea eta merkataritza askea eta elkar errespetatzeko akordioa ezartzeko. Bertan, Alemaniaren inperioa (Gineako Golkoa: Kamerun eta Togo esleituko zitzaizkionak), Italia, Belgika (Leopoldoko Kongo esleituko ziona), Portugal (Angola eta Mozambike esleituko zitzaizkionak), Frantzia eta Britainia Handia (lau itsasoetarako irteera esleituko zitzaizkionak) bildu ziren.

Koloniak administratzeko bi modu nagusi zeuden:

- 1- Britainia Handia: autogobernua mantendu zen, metropoliak koloniaren gainean indarra hartu zuten eta koloniak horren ordainetan autonomia. Bertakoek ordezkariak zuten kolonien gobernuetan. Autonomia handiagoa eskeintzen zuten modu honek, deszentralizatuagoa zen.

2- Frantzia: metropoliak zuzenean koloniak kudeatzen zituen, kolonia metropoliko administrazio zati bat izanik. Soilik kolono zuriek dituzte metropoliko hiritarren eskubide berak, besteek ez. Zurruna zen, zentralizatua Europako Inperio nagusiek erabili zituzten moduak izan ziren honakoak.

Britainia Handia inperio handiena izan zen 3 mendetan eraikia (lurraren laurdena beren esku zegoen). Orokorrean, koloniek autonomia handia zuten. Domeinuan zegoen oinarritua eta kolono asko zeuden lekuetan erabiltzen zen. Ondorioz, XIX. mendearen bigarren erdialdean, Kanada, Australia, Zeelanda Berria edo Lurmuturreko kolonian (Hego Afrikan) tokian tokiko gobernu-sistema propioak ezarri ziren. Gobernu hauek autonomia zuten, beren administrazio propioa zuten ordezkariekin. Gobernuaren burua Ingalaterrako koroak izendatutako gobernadorea zen, commonwealth countries osatuko dute, "administrazio propioa", erreginak jarraitzen batu buruzagi sinbolikoa izaten.

India, inperioaren harribitxia zen leku estrategikoan zegoelako eta horrela, Asiarekin harremanak kontrolatzen zituelako 1763. urtean. Koroak eskumenak emango dizkio merkatal enpresa handi bati lurra kudeatzeko, XIX. mendeko British East India Company-ren esku egongo dira lurraldeak, Britainia Handiaren eta Indiaren merkataritzaren monopolioa izango zutenak. Lurra babesteko bere gorputz militarra bidaliko zituzten eta natiboen haserrea piztuko zuten altxamendu batzuk eraginez, sepoy eta cipaye-ak (konpainiaren indar militarreko natiboak) izango ziren konpainiaren aurka matxinatu zirenak 1857-58an. Konpainia desegitea lortu zuten eta koroaren esku gelditzetu ziren lurraldeak zuzenean. 1858. urtean, gobernadore orokorra ezarri zen, baita funtzionario zibilak ere, Indian Civil Service izenekoak, Indiako europartze prozesua zuzenduko zutenak. India hala, Britainia Handiaren zerbitzura geratu zen, bai garraio sare eran, bai hezkuntza aldetik eta baita ekonomia espezializazioan ere.

1855an Indiako Kongresu Nazionala sortu zen eta independentziaren aldeko prozesua zuzendu zuen. Indiako Kongresu Nazionala erakundearen bitartez, Indiako nazionalismoa indartu zen eta domeinu administrazioa ezartzeko proposamena luzatu zen, arrakasta handirik gabe. 1906an, Liga Musukmana sortu zen. 1928an, Independentzia eskatu zuten, Gandhi-k masa nazionalismoaren alde jokatu zuen. Gatzaren martxa 1930. urtean eman zen. 1947an, Britainia Handiak, independentzia onartu zuen. Ostean, India eta Pakistanen arteko gerrak emango ziren: Cachemira-n (1947-49, 1965), Bangladesh-en (1971,...)...

Gainontzeko lurraldeei dagoekionean, Egipton, protektoratu bat ezarri zuen 1882an, klabea izango zena Indiarako bidean. Hego Afrikan, konkista 1806an eman zen eta hau ere Indiarako bidean klabea izango zen. Afrika kostaldean zehar eta Nilo ibaian zehar mugitzen ziren I. Mundu Gerran zabalkunderako baliagarriak izango zirenak, Kamerun edo Ekialde Hurbilera (Jordania, Irak, Palestina...) iristeko. Suezeko kanala, 1869an eraiki zen itsaso Mediterraneoaren itsaso Gorriarekin lotuko zuenak.

Frantziako Inperio kolonialaren gobernuari dagoekionean, metropoliko administrazioaren eredu eraman zuten kolonietara. Magreb-en zituzten koloniak: Algerian (1830), Tunisian (1881) eta Marokon (1912). Berlingo kongresuan (1884-85), Afrika mendebaldea, Afrika subsahariarra eta Madagaskar eskuratu zituzten, baita Indotxina eta Ekialde Hurbileko zati batzuk ere, Libano eta Siria. Frantziar gobernuak metropoliaren administrazioa eredu errepikatu zuen: koloniak departamentu bilakatu zituen (probintziak ezarri zituzten). Frantziar kolonoek metropoliaren sistema politikoan parte hartu zuten, hau da, hauteskundeetan parte hartu zuten Asanblada Nagusian ordezkariak lortuz.

Algerian, 1830tik aurrera, 30 urtez kontrolatu zuten lurraldea. 1871an, 3 departamentu ezarri ziren, baina kolono frantziarrek bakarrik zituzten eskubideak. Natibo musulmanek, ez zuten eskubiderik izan 1954/62 arte. Senegal-en berriz, 1850. urtetik eskubideak eman zen. Indotxina-ri

dagokionean, XVIII-XIX.mendeetan, frantziarrak Asian zabaltzen saiatu ziren bertatik Saigon eta Mekong ibaietatik gora eginea eta Asiarekin merkatal harremanak ezartzen saiatuz. 1885-1907 urteen bitartean, penintsula kontrolatu zuten frantsesek.

Praktika

- Zeintzuk dira Britainia Handiaren koloniak? India, Kanada, Egipto, Australia, Zeelanda Berria eta abar.
- Zein izan zen Britainia Handiaren harri bitxia? India izan zen, izan ere, aberastasun handiko lurraldea zen, baita estrategikoa ere Asia aldean, hortaz, honengatik potentzia europarrak borrokatu ziren.
- Nor zen Gandhi? Buruzagi politiko eta espiritual indiarra izan zen (Porbandar, 1869-New Delhi, 1948). Hegoafrikar Errepublikan indiarren diskriminazioaren aurka jardun zuen, eta bortxarik gabeko protesta-mugimendua antolatu zuen (1893-1914). Indiara itzuli eta, britainiarren zapalketaren aurka, mugimendu sozial eta politiko handia eratu zuen; kartzelan sartu zuten behin baino gehiagotan. Kongresu Nazionala alderdiko lehendakari izendatu zuten (1925-28). Independentziaren aldeko bere manifestua aldarrikatu zuen 1942an. Ondoren, herriaren heziketari ekin zion eta kastarik behereneko "ukiezinen" arazoa nahiz arrazen arteko gatazkak konpontzen ahalegindu zen. Brahman batek hil zuen.
- Zeintzuk ziren Frantziaren koloniak? Indotxina, Afrikako zenabit lurralde (Txad, Kamerun, Togolandia, Boli kosta, Kongo, Argeliako zati bat, Madagaskar...), Indiako zati bat, Karibeko irla batzuk, Polinesia, Guayana (Hego Ameriketan) etab. Nazionalismoaren ezaugarriak:
 - 1- sinboloak: sinboloen artean errepresentatiboena bandera da
 - 2- taldearen parte zaren sentimentua
 - 3- bere herria nazio izatearen kontzientzia hartu eta bere estatu propioa eraikitzeko edo bere interesentzat egokiena den politika erabakitzeko eskubidea aldarrikatzen duten pertsonen doktrina politikoa
 - 4-norberaren herri edo nazioko ezaugarri kultural, historiko, etab.i garrantzia eman eta horren eragina duen mugimendu, korrante edo jarrera.

5.GAIA. 1MG

5.1 Sarrera

XX.mendea historiako mende gatazkatsu eta krudelena izan zela dio Hobsbawn historialariak El corto siglo XX izeneko lanean. Mundu Gerrek historia aldatuko zuten oreka berri bat sortuz: Europar inperioaren gainbehera hasiko zen mapa berri bat sortuz eta inperioak desegiten hasiz. Pixkanaka, Amerikar Estatu Batuek, nagusigoa lortuko zuten: militarki, ekonomikoki, politikoki, sozialki... izan ere, Europako potentzia asko zorretan geratu ziren hauekin (I.Mundu Gerran laguntza ekonomikoa etab. emango zizkien). Lehen Mundu Gerrari, Gerra Handia ere deituko zitzaion.

5.2 Mundu Gerraren aurrekariak

Aurretik aipatriko gertakariak eman ahal izateko ordea beste zenbait gertatu ziren aurretik. Belle Époque (1871-1914) eman zen (frantsesez “Época Bella”). Adierazpen hau, 1MGren aurretik sortu zen. XIX.mendearen azken hamarkadatik 1914.urtera arte, hau da, Gerra Handiaren hasierara arte igaro zen Europako historiaren garaia da. Garai honetan, Europaren eta europartasunaren loraldia emango zen: hazkunde ekonomikoa, industrializazioa (kapitalismoa nagusi izanik), inperialismoa eta teknologia bitartez munduan nagusigoa (nazioak edo nazio estatuak mundura zabalduko dira beren kolonien bidez) eta gizarte eraketa berriak emango dira (gatazken bitartez, gizarte aldaketa berriak emango dira batez ere industrializazioarekin eta nazionalismoarekin lotuak). Garai hori, Pariseko Erakusketa Unibertsalean, 1889 eta 1900 urteetan ospaturikoan, islaturik geratu zen. Europar potentziak aspalditik lehian zeuden ordea eta Berlingo Konferentzian (1884-5) nabari zen. Bertan, diplomazia baliatzea izango zuten helburu, ez gerra egitea, baina nazionalismoaren garapenarekin, lehiak sortuz joango ziren eta elkarrengandik urrunduz. Honakoa, garrantziatsua da 1914tik aurrera gertaturikoa azaltzeko.

Bien bitartean, Alemaniako Inperioari dagokionean, Frantziak Prusiaren aurka galdu zuen (1870-1871) eta erreinu ezberdinak bilduz, Alemaniako estatu modernoa sortu zen. XIX.mendean zehar Europaren potentzien arteko oreka mantendu zen eta inoren boterea ez nagusitzean oinarritu zen. Konfliktua ordea, Europatik kanpora atera zen. Alemaniaren sorrerak, testuingurua aldatu zuen, Europa erdialdean potentzia berriak agertuko ziren eta nazionalismoa indartsua garatuko zen. Otto V. Bismarck (1871-1890), alemaniar kantzilerrak “alemaniartasuna” aldarrikatu zuen, Realpolitik alegia. Alemaniaren aurkako koalizioak eragozteko behin eta berriz estatuen arteko hitzarmenak bilatzen zituen, Austria-Hungaria, Errusia eta Italiak Frantzia baztertzeko zutelarik. Alemania ezarri nahi zen Europaren ardatz gisa, erdigune gisa.

1890an, Guillermo II. Enperdoreak ordea estrategia berri bat garatu zuen: Weltpolitik edo mundu-politika, nazioarteko harremanen norabidea aldatzeko, Alemaniaren inperioa mundura zabaltzeko nahi zuelarik. Ordutik aurrera, Frantzia bakartzea izan zen Alemaniaren helburu bakarra. Britainia Handiak munduan zuen buruzagitza kolokan jartzeko asmotan, harekin lehian hasi zen. Honetarako, Alemanian, prestaketa hasi zen armada indartsuak eraikiz, hau da, ontziteri handia eta armada sendoa. Mundura itsasotik zabaltzeko nahi zuten, baina Britainia Handia baino ahulagoa zen Alemania nahiz eta kontinenteko bigarren itsas-armada izan.

Europako potentzien estrategietan, 1890. urteko hamarkadatik aurrera, bi prozesuk zabalduko zituzten bideak: alde batetik, nazioarteko harremanek bloke gisa funtzionatzen zuten, naiz eta ideologia-printzipio homogeneorik ez eduki. Bestetik, gero eta maizago gertatzen ziren gatazkak eta gerra mugatuak. Hala, Europako potentzia nagusiak bi bloketan banatu ziren: 1-Inperio zentralak: Alemania, Austria-Hungaria eta Italia 2- Etente hirukoitza (1907): Frantzia, Britainia Handia eta “Errusia” (batuko zaie baina Britainia Handiak eta Frantziak tzarren erregimena kezkatu ikusiko dute, hau da, ez oso ongi).

Alemaniak Errusiar inperioari bidea itxi nahiko zion Balkanetan eta Inperio Otomandarrean sartzeko. Britainia Handiak, Alemaniaren hazkunderari beldur zion eta Frantziarekin elkartu zen Alemaniaren itsas zabalkunderari aurre egiteko. Entente Cordiale izeneko itunean, Ipar Afrikako lurraldeak banatu ziren: Egipto eta Marko Frantziak okupatuko zituen 1904an.

Momentu honetatik aurrera, tentsioek gora egingo zuten, tentsio-gune nagusiak Maroko eta Balkanak zirelarik. 1904an Frantziak Maroko okupatu zuen Britainia Handiaren baimenarekin, baina alemaniarrei ez zitzaien ongi iruditu. Austria-Hungariak eta Errusiak Balkanen gaineko kontrol politiko eta ekonomikoa nahi zuten. Errusiak itsasora irten nahi zuen. Balkanetako gerrak gertatu ziren (1912-1913), hauetan Austria-Hungariak (Bosnia kontrolatzeko) eta Errusiak (Balkanak kontrolatzeko) parte hartu zuten. Tentsioen ondorioz, potentziak gerrarako prestatu ziren oso ondo jakin gabe noren kontra izango zen. Potentzia nagusiak berrarmatzen hasi ziren armagintzaren lasterketa horretan.

1914. urteko ekainean, Austria-Hungariako koroaren oinordekoa, Frantzisko Fernando artxidukea, Sarajevo-n, Bosnia-Herzegovinako hiriburuan, izan ziren bisitan. Bisitaldi horretan, bere emaztea eta 19 urteko printzea hil zuten. Hiltzailea, Serbiaren aldeko bosniar bat zen, elkarte sekretuko kidea zen ("Mano Negra"). Honen helburua zen Serbia Hnadia osatzea eta Austriaren menpetik askatzea. Hilketak ez zen gerraren jatorria izan, ez zuen zuzeneman eragin, baina tentsioek gora egin zuten, diplomazia martxan jarri zen eta elkarrizketak eman ziren (1914-07-28). Austriak Serbiari ultimatum-a bidali zion eta Serbiak baldintza guztiak, bat izan ezik, onartu zituen. Orduan, Austriak Serbiaren kontrako gerra aldarrikatu zuen. Errusia Serbiaren alde jarri zen (1914/07/30). Gainontzeko potentziak nahasi egin ziren: Alemaniak Errusiarri (1914/08/01) eta Frantziari (08/02) gerra deklaratu zion eta Britainia Handiak Alemaniari (08/04), Belgikan sartu zelako. Inperio Otomandarra I. en Mundu Gerran 1914ko azaroan sartu zen.

5.3 Gerra (1914-1918)

Gerraren bilakaerari dagokionean, laburra izango zela uste zen, baina 4 urte gehiagoz luzatu zen, 1914/07-tik 1918/11-ra. Bake Ituna, 1918an sinatu zen Versaillesen.

Blokeei dagokienez, alde batetik, Entente Hirukoitza zegoen : Britainia Handia eta Errusiak osatua. Ondoren, Belgika, Serbia eta Montenegro, Japonia (Ozeano Bareko Alemaniaren kolonien atzetik, Txinaren aurka), Italia (1915ean), Errumania eta Portugal (1916), Amerikar Estatu Batuak eta Grezia (1917an) sartu ziren. Inperio Zentralak ere bazeuden: Austria-Hungaria, Alemania, Otomandar Inperioa eta Bulgaria (1915) zirenak parte hartzaileak. Bestetik, neutralak zeuden: Suitza, Holanda, Suedia, Danimarka, Norvegia eta Espainia ziren. Mundu gerra, Amerikako Estatu Batuen eta Japoniaren ondorioz eman ziren.

Lubakiei dagokienez, industrializazioaz, makina eta arma berriak medio, gerra egiteko modu berdintsuak eman ziren. Posizioak hartuz joan ziren eta trintxerak eraiki eta erasotu eginten zuten, aurrera egin ezin arte. Batez ere mendebaldeko frontean eman ziren, Suizatik Ipar itsasorako bidean. Batailarik ezagunenetakoa batzuk, Marne (Frantzia 1914), Somme (1916), Verdun (Frantzia, 1916), Gallipoli (1915, Turkia), Tannenberg (Prusia, 1914), Jutlandia (1915, Itsasoan) eta Amiens (Frantzia, 1918/08)

Laburbilduz, mendebaldeko fronteko posizioak finkatua eta ia bukaerara arte ez atzera eta ez aurrera geldituko dira. Austrohungaria eta Errusiar Inperioa. Horren barruko herrialde guztiak geldituko dira Alemaniaren edo Austriaren barne.

1MG, hasieran, Europako gerra zibil bat izan zen. Gero sartu ziren lehian Estatu Batuak eta Japonia. Azkenerako, mundu-mailako gatazka izatera iritsi zen. Amerikar Estatu Batuak gerran sartu ziren 1917. urteko udaberrian. Luisitainia ontzia 1915/05an ondoratu zelarik eta

Zimmenman eskutitza 1917/01an sinatu zelarik. Berri historikoa izan zen, bere tradizio isolzionistagatik. Zergatik? Munduko politikan Europako potentzien protagonismoa ahultzeko, batez ere Alemaniarena, baita potentzia aliatuekin interes ekonomiko handiak zituztelako ere.

Munduko gidaritza berria eman zen, Wilsonen borondate politikoa, bakea heuren lortzea zen: demokraziaren izenean garailerik gabe gerra amatzea eta inperialismotik askatzea mundua alegia, Sociedad de Naciones sortuz. 14 puntu idatzi zituen Nazio Batuen Erakundearen aurrekari izango zirenak. Hainbat harmada-talde bidali zituen Europara eta aliatuei eskeini zien, hau da, laguntza ekonomikoa eta babes militarra eman zien. Aurrerantzean, gerraren balantza aliatuen alderantz joan zen.

Aliatuek eta Amerikar Estatu Batuek Alemania garaitu zuten mendebadeko frontean. Potentzia aliatuek eta Alemaniak gerraren amaiera sinatu zuten 1918/08.urtean. Alemania erabat suntsitua geratu zen eta herritarrak nahigabetuak zeuden, aurkakotasuna sortuz. Guillermo II.ak abdikatu eta errepublika federala aldarrikatu zen 1919.urtean. Porrotaren arrazoiak ezberdinak ziren: 1-Estatu Batuak gerran sartzea: laguntza eman zuten, potentzia ekonomiko handia izateagatik. Potentzia aliatuen gerra-gastuak inperioarenak baino handiagoak izan ziren. 2-1917.urtetik, Austria-Hungariako Inperioaren gainbehera eman zen eta horregatik, bere erakunde politikoak aldatu ziren, Wilsonen eslatu zuen moduan. 3-Alemaniaren aurkakotasunak hazi zirela

5.4.Gerraren ondorioak

Gerra mundu osora zabaldu zen eta 50-60 milioi gizon inguru mobilizatu zituen. Bestetik, ordura arteko estrategia militarrek porrot egin zuten, armen indar handiena hartuz eta infanteria eta zalditeriak porrot eginez. Nazionalismoak indar handia hartu zuten eta sozialismoarekiko aurkakotasuna ere hasi zen, mehatxu gorriaren aurka eginez. Gainera, Nazioarteko politikagintza berria abiarazi zen Nazioen Elkartearen sorrerarekin.

Europa suntsitua geratu zen 10 milioi hildakorekin eta 20 milioi zauriturekin. Europako herrialdeak Estatu Batuekin zorpetuak geratu ziren eta Amerikar Estatu Batuetako bankuak egoeraz aprobetxatu ziren. Britainia Handia, Frantziak, Amerikar Estatu Batuak eta Italiak bakean protagonismoa eraman zuten. European zehar hedatu zen arrisku gorria 1918an azaroko iraultza alemaniarra emanez, baina porrot egin zuen. Arrisku boltxebikea hedatu zen Alemaniatik, baina altxamendua menderatu zuen gobernuak. Inperioak, hausten hasi ziren mapa berria emanez Europa eta munduan (Ekialde Hurbila banatua zegoen Britainia Handia eta Frantziaren artean). Emakumea lan mundura sartzen hasi zen gerran, atzeraguardian eta lantegietan egiten zuten lan, baldintzak, gerra eta gerra ekonomiako testuingurukoak izanik. Alemaniarekin Versalleseko ituna sinatu zen 1919ko ekainaren 28an, Frantzian.

Praktikak

- Zeintzuk izan ziren Hobsbawmen ustez, gerra piztearen arrazoiak? Ez ziren ideologia kontuak izan gerra piztuko zutenak, helburu mugagabeak baizik. Zabaltzeko eta zabaltzeko nahi horiek. Baten igoerak/hazkundeak, bestearen egoera kolokan jartzen du. Nazionalismoak ere asko eragingo du besteen aurkako sentimendu horretan.
- Zer da Aliantza Hirukoitza? zer dio testuak? Lehen Mundu Gerran Alemaniak, Austro-Hungariak eta Italiak osaturiko aliantza da. Testuak dio, bakea mantenduko dutela hiru estatuen artean; Italia Frantziak erasotuko balu zuzenean babestuko dutela/laguntza bidaliko dutela aliantzaren parte diren beste bi estatuek. Sekretuan mantenduko zuten hitzarmena eta 5 urtez beteko zuten.
- Zer da Realpolitik? eta Weltpolitik? 1-Realpolitik: etimologikoki, politika pragmatikoa edo erreala da. Nazio estatu berri bat sortuko zen, Alemania, eta Otto von Bismarck kantzilerra alemaniar protagonismoa ari zen aldarrikatzen interes politikoen xake-taula berri horretan.

Realpolitik hitza hortik dator. 2-Weltpolitik: etimologikoki, munduko politika da. Alemaniako enperadore Gilen II.ak nazioari begira ezarri zuen politika berria. Realpolitika ordezkatu zuen. Zabalkundearen ideia, hau da, Inperioaren ideia bueltatzen da alemaniarren buruzagia. Ideia inperialista eta nazioaren handitasunaren ideia alegia.

- Zer da Entente Hirukoitza? Lehen Mundu Gerran Frantzia, Errusia eta Britainia Handiak osatutako aliantzari deritzo. Aliantza Hirukoitzaren kontrakoa izango ziren.

- Nork hil zuen Austria-Hungariako artxidukea? Gavriilo Princip serbobosniar naziobalistak, Esku Beltzak taldekoa. Serbiar espiotzarekin lotuko dute, bere atzean dagoen estatu berri horrekin. Serbia jarri nahiko dute atzean.

- Zer geratatu zen Verdunen? Lehen Mundu Gerrako bataila luzeena eta handiena izan zen mendebaldeko frontean. Frantsesek eta alemaniarrek elkarren kontra borrokatu zuten eta 1916ko otsailaren 21etik abenduak 18ra iraun zuen.

- Zer gertatu zen Lusitania ontziarekin? 1915eko maiatzak 7an, Irlandako itsasoan, urpeko eraso alemaniarrek Lusitania gerra ontzia hondoratu zuen. Lehen Mundu Gerraren garaian gerra ontzi bati gertatutako hondamendi handienetakoa izan zen. Lehen Mundu Gerran hegazkinak bezalaxe urpeariak ere izango dute garrantzi handia. Ordura arte abisua pasatzen zen erasotzera zindoazenean. Estrategiak aldatuko ziren.

- Zer da Zimmerman eskutitza? Zimmermannen Telegrama, sekretupean eta telegrafoz 1917an Alemaniako atzerri ministroak Mexikori eskeinitako aliantza militar bat izan zen. Britainiar intelgintziak dekodifikatutako mezu honetan, Lehen Mundu Gerran Mexiko Alemaniarekin bat egin eta AEBren aurka borrokatzeko eskatzen zitzaion. Honek eragingo du AEB gerran sartzea eta honek desorekatuko du kontua.

- Zer izan zen Versalleseko Hitzarmena (1919)? zer dio? Versallesen bakea sinatu, muga berriak ezarri ziren. Pasarteak, Ameni ahartzen du erruduntzat.

- Zer da Balfourren deklarazioa? Arthur James Balfour Kanpo Arazoetako ministro britainikoak mugimendu sionistarekin 1917ko arazoan eginiko hitzarmena da. Britainiarrek oniritzia eman diote judutarrei Palestina hartu eta bertan ezartzeko, estatu judu berria sortzeko.

- Zer da Skytes Picot akordioa? Skytes-Picot Hitzarmena, ofizialki Asia Txikiko Hitzarmena (ingelesez Sykes-Picot Agreement edota Asia Minor Agreement, eta frantsesez Sykes Picot) Britainia Handia, Irlandako Erresuma Batua eta Frantziako Hirugarren Errepublikaren arteko ezkutuko hitzarmen bat izan zen, Errusiar Inperioaren onarpena ere izan zuen. Hitzarmen honen helburua, Lehen Mundu Gerran Entente Hirukoitzak Otomandar Inperioa garaitzearen kasua emanez gero Ekialde Ertaineko lurralde banaketa zehaztea zen. Hitzarmena gauzatzeko negoziaketak 1915eko azarotik 1916ko martxora ezkutuan burutu ziren, eta 1917ko azaroaren 23an Izvestiaeta Pravda errusiar egunari boltxebikeek ezagutzera eman zuten, handik gutxira, azaroaren 26an, The Manchester Guardian britainiar egunkariak egiaztatu zuen. Gerran zehar sinatutako itun ezberdinen ondorio da. Aurreikusten dute Otomandar Inperioa desagertuko dela. Desagertzen denean euren artean banatuko dute, hau da, estatu berriak sortuko dira. Gerraren ondorioen artean, Ekialde Hurbila munduko bi inperio handien artea banatzea emango da: Frantzia eta Britainia Handiaren artean alegia. Gaur egungo konfliktoen arrazoietakoa bat hau da.

6.GAIA. Errusiar Iraultza

6.1. Sarrera

1MGren testuinguruan kokatuko ginateke, Errusia inperio izatetik SEBS izatera pasa zenean. Inperioaren gainbeheraren eta iraultzaren arrazoiak ezberdinak izan ziren kanpo faktoreak (lehen mundu gerra) eta barne faktoreak medio. Gainera, ondorioak, sozialismoa praktikan jartzea alegia, Iraultza gorriaren aurrean mundua erne jartzea eragingo zuen. SEBS-ek 1991 arte zutik iraungo zuen, gaur egun miresmena sortzen duen prozesua izanik. Errusiar Inperioa XVIII.mendean Europatik Asiara hedatzen hasi zen (1917-21). Enperadorearen familia bat zegoen, Erdi Arotik zetorren inperio batean. Tsarismoak Antzinako Erregimena ordezkatzeko zuen, eta Tsarrak botere osoa edukiko du, oso autokratikoa izango da. Romano V familia (XVII) Tsarrak ziren eta Alejandro II (1855-81), Alenjandro III (1881-94) eta Nicolas II (1894-1917) k osatzen zuten dinastia. 100 milioi biztanletik gora egongo da inperioaren lurretan (gehienak European) eta 100 nazio osatuko dituzte. Gizartea estamentalak izango zen: nekazariak, %80a izango ziren, noblezia lurjabea ere egongo zen eta baita eliza ortodoxoa ere.

6.2. Tsarren Errusia

Tsarra enperadorea izango da, eta beraz, botere absolutua du. Elizaren babesak du eta Europaren aldaketa handien aurrean Tsarrak egoera bideratu nahiko du. Errusia egitura politiko oso autokratikoa da, eta horren ondorioa herrialde atzeratuak izatea da, nekazaritza eta pobrezian nabaritu delarik gehienbat. XIX.mendean industrializazioaren lehen zantzuak eman ziren bi faktore nagusigatik: 1-morrotza deuseztatzea (1861): herrialdeak pobre izaten jarraituko zuen (lurrak erosi bai, baina gaitasunik ez zuten etekinak ateratzeko). Nahiz eta estatus politiko-juridikoa hobetu, errealtatean, abantaila gutxi irabazi zituzten. 2- Trenbide sareak: komunikazioa hobetzen hasiko dira, eta honek lur berriak kolonizatzeak aukerak sortuko zituen (Trantsiberiarrak, 1904). Gainera, migrazioak lagundu egingo zuen trenbidea egokitzen hirietara.

Igande odoltsua

Errusiara ere aldaketak iritsi ziren. Industrializazioak eta atzerriko eraginek Tsarrak kolokan jartzen zituzten. Ondorioz, klase berriak sortzen joango ziren, eta joera liberalak defenditzen hasi. Burgesiak ordezkariak eskatuko du eta era berean langileak antolatzen hasiko dira (Errusiako Langileen Alderdi Sozialdemokrata sortzen da(1898)). 1903tik aurrera, bitan banatuko ziren: boltxebikeak eta mentxebikeak (izen esanguratsuenetarikoa, Martov, Lenin eta Stanlin izanik). Inperialismoa garatzen ari zen bertan 1904-5 urteen bitartean eta tentsio egoeren ondorioz emaniko Errusiaren eta Japoniaren arteko gerrak, okerrera eramango zuen prozesu hau.

Japoniak Mantxuria eta Koreara zabaldu nahi zuen eta arrakasta handirik gabe, Errusiak aurre egin zion Tsarrak kaltetuta ateraz. Igande odoltsua edo 1905eko iraultza deituriko gertatuko zen ondoren, nolabaiteko iraultza saiakera bat izanik. Greba orokorra deituko zen Petrogradon (hasieran Leningrado zena, gero, Petrogrado eta gaur egun, St Petersburg). St Petersburg hiriburuan protestak eman ziren Tsarren jauregiaren aurrean. Honen aurrean, armadak erantzun gogorra eman zuen eta 200 langile hil zituen. Batzuen iritziz, gertakari hau litzateke Errusiar Iraultzaren hasiera.

Tsarrak erreformak abiaraziko zituen eta Urriko Manifestua sinatu zuen: giza eskubideak bermatzeko, partidu politikoak legalizatzeko, sufragio unibertsala ezartzeko... Gainera, ordezkarien ganbera osatu zuen 1906an, Duma izenekoa. Hau nolabaiteko efektibidaderik ez duen instituzio bilakatuko da, izan ere, azken hitzak tsarrak zituen eta dumak ezingo du tsarraren gobernuak aukeratu eta ez da sufragio unibertsala ezarriko bertan. 1906an Konstituzio berri bat diseinatuko du, eta horren arabera, Tsarraren boterea beti egongo da Dumaren gainetik. Burgesia

langileriarengatik banatzea lortu zuten gatazkak baretuz. Langile eta nekazarien batasunaren alde Lenin agertuko zen iraultza sozialista emango zuelarik. Horrela, igande odoltsuaren ondoren lortutako lorpenak edo egindako aldaketak, oso denbora gutxian baliogabetuko ziren.

Istiluen ondorioz, Tsarren aurkako protestak handituko zirelarik: altxamendu eta grebak ugaldurik, burgesia langileriaren alde jarri eta langile mugimenduari protagonismoa hartuko zuen (Sobiet sortuko zen, lagileek, nekazariak eta soldaduek osatutako langile asanblada, iraultza ostean desaezko zena).

Iraultzaren bilakaera

Iraultza abiarazi zuten arrazoiak gehienbat Konstituzioarekin zeuden lotuak: Tsarrak Duma onartu zuen, baina azken hitza berak zuen 1906.urtearen ostean ikusi eran. Gainera, lurren premia handia zegoen eta nekazariak 1906ko legeei esker nekazariak lurjabe izateko aukerak zituzten, baina ez zen nahikoa izan. Bestetik, langile mugimenduaren burua (Lenin), erbestean bizi zen. Burgesia ahul zegoen eta gatazkek gora egin zuten, lur jabe handiek lurrak mantendu nahi zituztela medio (lurren erdia 30000 jaberaren eskuetan zegoen eta beste erdia, 82 milioi pertsonen eskuetan). Bestalde, autoritarismora itzulera ere emango da.

1914ra arte, Europa izan zen munduaren ardatz eta modernitatearen eredu inperialimoaren bitartez zabaldua izan zena. 1914/06/28an, txispa piztuko zen, Sarajevon Artxidukea eta honen familia hiltzen dutenean. Errusia Lehen Mundu Gerran sartzea eragingo zuen gertakari honek, kalte handiak eragingo dizkiolarik: lurrak apurtu eta baserriak ez egotea, lehen 8 milioi zeudelarik. Hala, goseteak eta aurkakotasunak eman ziren eta mugimendu iraultzaieek indarra hartu zuten.

1917ko otsailean, iraultza piztu zen: "bakea eta ogia" eskatuz Petrogradon langileak atera ziren greba eginez. Sobietak berriro eratu ziren, eta boltxebikeek iraultza sozialista burutu nahi zuten, bitartean, Lenin erbestean zegoelarik. Tsarrak ezin izan zuen egoera kontrolatu, eta azkenean, abdikatu egin behar izan zuen.

Otsaileko Iraultza: gobernu probisional bat osatu zen Kerenski zelarik burua. Tsarra atxilotu egin zuten eta egoera ezegonkorra bilakatu zen Duma eta Sobietaren artean, 1917ko urrian, boltxebikeek altxamentu armatua gauzatu zuten. Ondoren, Herriaren Komisarioen gobernua osatu zuten: Leninek zuzendua. Gobernu lege berriak eratu ziren, hala nola, lurren kolektibizazioarena. Lehen Mundu Gerra amaitzean, Alemaniarekin bake ituna sinatu zuen Leninek.

SEBSren eraikuntza

1917ko Urriko Iraultzan boltxebikeak nagusitu ziren. Alderdi burgesak debekatu eta mentxebikeak botere uneetatik kanpora bidali zituzten, baiita anarkistak ere. Honekin, gerra piztuko da.

1918an Konstituzio berria idatziko da, eta bertan, Errusiar Errepublika Federal Sobietar Sozialista (EEFS) aldarrikatuko da. Langileak Errepublikaren gaineko agintea zuten Sobieten bidez, langile iraultza eman zen horrela eta sozialismoa abian jarri zen.

Gerra zibila

Eskualde osoak zeuden boltxebikeen kontrolpetik kanpo, eta toki horietan sortu zen kontra-iraultza. Kontrairaultzaileak ziren: tsarismoaren aldekoak, burgesia liberalen taldeak eta urriko iraultza disidentek. Hauek armada zuria osatu zuten nazioarteko laguntzarekin.

Boltxebikeek, Trotsky buru zela, aurkako estrategia antolatu zuten: boterea zentralizatu, “gerra komunismoa” matxan jarri eta Armada Gorria sortu zuen. Honek irabazi egingo du.

1923an Konstituzio berri bat onartzen da, eta bertan Sobietar Errepublika Sozialisten Batasuna sortu zen. Nazionalismoak errespetatzeko asmoz egitura federala ezarri zen: Errusia, Ukraina, Bielorrusia eta Transkaukasikoak ziren errepublikak. 1924tik Stanlinek zentralismoa zuzendu zuen Moskutik.

Praktikak

- Zer da igande odoltsua? Igande Odoltsua Errusiako Guardia Inperialak manifestari baketsuen aurka 1905eko urtarrilak 22an egin zuen sarraski bat izan zen. Aipaturiko egunean gertatu zen San Petersburgon, egun horretan 200 langile, gaur egun Hermitage museoa den eta garai hartan Tsarren egoitza zen, Neguko Jauregiaren atean bildu zirenean.
- Zer da el acorazado potemkin? nork zuzendu zuen? zer kontatzen du? Potemkin korazatua, Sergei Eisenstein zinemalari errusiarrak zuzenduriko filma da, 1925ean Moscofilmek ekoiztua. 1905ean Potemkin ontziko marinela euren nagusiei aurre egin zienekoa du gaitzat. Zinemaren historiako film onenetarikotzat jotzen da. Honen helburua, propaganda egitea zelarik.
- Zer da boltxebike bat? zer da mentxebike bat? Mentxebikeekiko zatiketaen ondoren (1903), Plekhanov eta Leninen tesia jarraitzen zuen Errusiako Langile-Alderdi Soziodemokratako zatiaren jarraitzaileak ziren. Komunistak ziren Boltxebikeak, batez ere, Sobietar Batasuneko Alderdi Komunistakoak ziren. Mentxebikeak, Errusiako Langile Alderdi Soziodemokrataren 1903ko Batzar Nagusiaren gutxiengoa ziren taldea zen, gehiengoaren, hau da, Lenin eta Plekhanoven (boltxebikeen) tesiaren aurka azaldu zirenek ziren.
- Zer da дума? Errusiar inperioko batzar legegilea da.
- Zer da soviet-a? Errusian, 1905-1917 bitartean, langile eta soldaduen ordezkarien batzarra zen. SEBS ohian kontseilu edo batzar politikoa zen. Sobiet federala SEBSeko organo gorena zen, eta bi ganbaraz osatua zegoen: nazioarten sobieta eta batasuneko sobieta. Horrez gain, errepublika bakoitzean, ganbara bakarreko sobiet goren bat zuten.

7.GAIA. Gizarte eta politika MGen artean (1919-39)

1919-39 urteen bitartean, Lehen Mundu Gerraren bukaeratik Bigarren Mundu Gerra hasierara arteko tarte eman zen. Kontraste handia emango da hamarkada hauetan.

7.1. Sarrera

Mundua suntsitua geratu zen eta garai berrien hasiera izango zen. Versailleseko Ituna (bake hitzarmena) sinatu eta herrialdeak berrantolatzen hasi ziren, momentu ezegonkorra izanik. Irabazle eta galtzaileak (Alemania) egon ziren gatazkaren ostean, 1929ko kraka eta krisi ekonomikoa ematen ziren (Estatu Batuetatik mundu osora zabaldu zena, Amerikar Estatu Batuekin zorrak oraindik mantentzen zirelako eta harremanak eta tratuak zituztelako diru kontuetan europar estatuek). Mehatxu gorria martxan zen (Iraultza sozialista) eta demokraziaren porrotak, haserrea piztua zuen. Kontextu honetan, faxismoa azaldu zen Europan eta ez zuen inork geldiarazi.

7.2. 1920ko hamarkada

Gerraren ondorioak 1923/24 arte iraun zuten, hemendik aurrera, nolabait berreskuraketa bat ematen zebilelarik baina ez zuen luzaro iraungo eta hala, berreskuraketa guztiz ematea kosta egin zen. Errusian gerra zibil bat eman zen, ondoren, hamarkadan zehar, pixkanaka SEBS onartzen joango ziren. Europan iraultzak emango ziren, Alemanian (Weimar) eta Hungarian (Bela-Kun). SPD (Partidu Sozial Demokratikoa) eta Partidu Komunistak boterea eskuratuko zuten hala eta III. Internazionala emango zen 1919. urtean Partidu komunistek osatua. Pistolerimoa eta squadristi bandak eratuko ziren justizia beren kabuz ezartzeko helburua izango zuten taldeak. Greba eta protestek hala, gora egingo zuten mugimendu komunisten aurka, azpimarratzeko herrialdea Italia izanik 1919. urtean, Italiako Bira eman zelarik. Desmadrea ekiditeko, diktadurak ezarri ziren: Portugalen (Salazar), Hungarian (Miklos Horthy), Espainian... Era batera edo bestera, diktadurak ematen amaitu zuten Europako herrialde gehienetan. Militarrei emango zaia agintea mehatxu gorria, langile protestak... gelditzeko.

1925ean, Locarnako Hitzarmena sinatu zen Europako estatuen arteko distentsioa edo baretzea emateko. Frantzia eta Alemania (mundu gerrako protagonistak batu ziren tentsioak baretu eta akordio batzuk egiteko). Frantziak, Rhun industriaguna utzi zuen 1923 an inbaditua izan zelarik. Alemania Nazio Ekartera ordea, onartua izan zen. Demokrazia liberalean konfiantza izatea lortu zenez, kapitalismoa indartu nahi izan zen.

1925-29 artean, egoera "hobetu" zen, izan ere, baikortasuna ugaltu zuen garapen teknologikoak, sistema publikoa indartzen lagundu zuenak (gizarte segurantzak eta hezkuntza publikoa), baina honek, arazoak ez zituen konpondu, desoreka eta haserrea baino ez zeudelako. Sozialismoaren aurka zeuden, klase eraina haserre zegoen, jabe handiak zeuden... hortaz, Mundu Gerraren ostean, Europa suntsitua zegoen eta bake hitzarmenak egingo zituzten gerrako protagonista izandakoek. Egoerak hobera doala eman arren, 29ko kraka gertatu eta bueltatu egin ziren aurreko egoerara edo egoera okerrago batera. Ondorioz, jendea haserretu egin zen. Italia eta Alemania sozialismoaren mehatxu izan ziren.

1920ko hamarkada zorientzua

20ko hamarkada zorientzuan, emakumeen boto eskubidea lotu zen AEBn (1920), BHN (1928), Espainian..., kontsumo ondasunen produkzio eta kontsumoa emango zen (autoak 25 milioi pertsonen erosi zituzten, iratiak 52 milioi pertsonen erosi zituzten, telefonoak, tresna elektrikoak, arropal...), publizitate eta hedabideak garatu ziren, masa ikuskizunak eman ziren (Hollywoodera, 75 milioi pertsona joango dira astero), AEBn eragin handia izan bazuen ere,

Europar gutxiago izan zuten: American way of life eta Lege lehorrean (ley seca-n) islatua geratuko zen eran.

7.3. 1930ko hamarkada

Italian, vittoria mutilata esapidea zablakua zegoen, izan ere, sozialismoaren mehatxupean eta Versailleseko Itunarekin haserre zeuden, gainera, Londresko Ituna ez zen errespetatu. Faxismoa, Mussolinik 1919an, Fasci italiani di combattimento sortu zuen. Vittoria mutilata izenekoaz, nazionalismoa aldarrikatu nahi zen. Liberalismoa ez zen langileria kontrolatzeko gai izan eta ordena berrezarri beharra zegoen, hauteskundeak eman zirenean (1919-1921), muturrak indartu ziren baino. 1921ean, Partito Nazionale Fascista sortu zen eta Benito Mussolini parlamentuan sartu zen. 1922an, Erromara martxa eman zen greba apurtua izan zelarik. Victor Manuel III.a erregeak, ez zion kasurik egin Luigi Facta presidenteari eta hala, ez zituen alkandora beltzak atxilotu, Mussolini Lehen Ministro izendatu zuten eta Gobernuak eratu zuen eta protestak areagotu ziren arrazoi ezberdinengatik: Giacomo Matteottiren hilketak eman zen (sozialista italiarraren buruetako bat), faxistei aurre egiten diena delako 1924an. Ondoren, diktadura eman zen eta faximoaren oinarriak finkatu ziren: estatu totalitarioa (korporatibismoa alegia, hau da, gizarteak, jendeak eta estatuak bat egitea, dena gorputz bat izanik). Alderdi bakarra (1928) eta zentralizatua egongo zen, masa gizartearen erabilpena egingo zuena (demagogia). Balore tradizionalen defentsa egingo zuen (familian emakumea ama izango zena). Buruzagi karismatikoak ezarriko zituzten: Il Duce; baita sinbolo ugari erabili ere. Ekonomian berriz, parte hartzea eta autarkia bultzatuko zituzten. Azkenik, Hitlerren botere hartzea emango zen.

Praktikak

- Wilsonen 14 puntuek, zer diote? Wilson, AEBko presidentea zen. Lehen Mundu Gerraren ondoren, Europar bakea lortzeko bere ikuspuntutik, Estatu Batuetatik egin zituen proposamenak ziren. Bertan, mundua nola antolatu behar den, bakea nola lortuko den... adierazten zen 14 puntutan laburbiltzen zelarik. Diplomaziak edo hitzarmenak egerikoak, hau da, publikoak izan behar zutela aurrerantzean zihoen. Era berean, hemendik aurrera, lurralde jakin batena den itsaso zatitik kanpo, askatasunez nabigatu ahal izango zela zihoen. Horrez gain, muga ekonomikoak ahalik eta gehien ezabatu nahi direla, bakea sinatu zuten nazioen artean merkatal harremanak sustatzeko. Halaber, armamentuak ahalik eta gehien murriztuko zirela ematen zen aditzera, segurtasunaren izenean. Era berean, aipatzen da beste herrialdeetara indarrez zabaltzeko jarrerari edo inperialismoari uko egingo diotela bakea sinatu duten estatuen, baita autodeterminazioarako eskubidea proposatu ere. Garrantzitsuena ordea, nazio elkarten sorrera proposatzea izango da. Wilsonek hala, egungo nazio batuen edo ONUren aurrekari bat eratu zuen. Gertatutako gertatu ondoren, nazioarte mailan funtzionatuko duen erakunde bat sortzea proposatzen zuen, herrialde ezberdinetako ordezkariak izango zituen eta gatazketan esku-hartzeko eskumena izango zuena. Egiaztan, ez zen momentu honetan sortuko, baina ideia bera bai. Etab.
- Zer da 1920ko hamarkada zoriotsua? adb-ak eman. Eredutzat Estatu Batuetako 29ko hamarkada hartzen da. Behin hori jakinda, bereizgarritzat, jendearen baikortasuna lukeen Lehen Mundu Gerra bukatu osteko garai laburra hartzen da. Zoriontasun mitifikatu horren arrazoia hazkunde ekonomikoa da. Ez zuen luzaro iraun 29ko kraka medio.
- Zer da lege lehorra?(ley seca) AEBn debekatu zuten alkoholaren kontsumoa eta merkataritza. Zer dela eta? alkoholak American dream horretarako lan hori eta bide hori egiteko trabak jartzen zituelako. Kutsu erlijiosoak izan zuten atzean, nolabait bide zuzenetik debideratzen zuten elementua zelako. Mugimendu feminista gehienek bet egin zuten lege horrekin (izan ere, askotan emakumeak izan ohi ziren biktimak, gizonak lanetik atera ondoren, tabernetik pasa, mozkortu eta emakumeak bortxatzen zituzten). Jendeak ordea, alkohola edaten jarraitu zuen mafien bitartez eskuratuak.

- Zer da Vittoria mutilata? Vittoria mutilata italiar poeta ezagun batek, Gabriele D'Annunziok, esan zuen esapidea da, adierazteko orduko egoera, haserrea alegia. Faxismoak erabiliko du gero esapide hori. Haserre horren jatorria honakoa izan zen: hasiera batean inperio zentralarekin bat egingo zuela bazirudien ere, 1915an, beste bandora pasa zen ondorioak ekarriz. Sinple esanda, italiarrak ez zeuden kontentu Lehenego Mundu Gerratik ateratakoarekin/jasotako tratuarekin. Gerra aurretik, Londreseko Itunean, hitz eman zizkieten lurak ez zituzten lortu. Haserre hori estuki lotuta egongo da italiar nazionalismoari, nazio batasunaren ideiarri batzeko arrazoia izango da.

- Zer da Erromara Martxa? nor zen G. Matteotti? Erromarako Martxa (italieraz: Marcia su Roma) Benito Mussolinik antolatutako ibilaldiari deritzo. 1922an Mussolinik eta bere Italiako Alderdi Nazional Faxistak boterea lortu zuten Martxa honen ondorioz. Viktor Emanuel III.a Italiako erregeak Mussoliniri gobernua eratzeko eskatu baino lehen, faxistek Erroma hartzeko mehatxua egin zuten. Mussolinik "alkandora beltzak" zeritzen 25.000 faxistekin egin zuen martxa. Trenez eraman zituzten eta Erromako kaleetan desfilea eta indarra erakutsi zuten. Ondorioz, erregeak, gobernua eratzeko eskatu zion Benito Mussoliniri. Giacomo Matteotti, politikari italiarra zen (Fratta Polinese, 1885-Erroma, 1924). Alderdi sozialistako idazkari nagusia aukeratu zuten (1924). Faxistek hil egin zuten ordea.